

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA

INFORMATIKA-APLIKAZIOAK GARATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. PROBA/1. eta 2. ZATIAK

A EREDUA

Durango, 2012-01-28

1 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA,...

- 1a) Nazioaren subiranotasuna Gorteetan datza.
- 1b) Nazioaren subiranotasuna monarkia parlamentarioan datza.
- 1c) Nazioaren subiranotasuna Espainiako herrian datza.
- 1d) Nazioaren subiranotasuna Estatu osatzen duten nazioetan datza.

2 ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAKETA. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- 2a) Bost mila biztanle baino gutxiagoko udalerriek ez dute nortasun juridiko propioirik.
- 2b) Udalek gai jakin batzuei buruzko erregelamenduak onartzeko gaitasuna daukate.
- 2c) Gaur egun, Estatuak ez du eskumen eskusiborik administrazio publikoen araubide juridikoko oinarriak arautzeko.
- 2d) Autonomia-erkidegoek ez dute eskumenik oinarritzko legeak garatzeko legeak onartzeko.

3 AUTONOMIA ERKIDEGO HAUETATIK, BATEK EZ ZUEN AUTONOMIA LORTU KONSTITUZIOAREN 151. ARTIKULUAN EZARRITAKO BIDEAREN BITARTEZ; ZEIN?

- 3a) Katalunia.
- 3b) Euskal Autonomia Erkidegoa.
- 3c) Nafarroa.
- 3d) Andaluzia.

4 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 4a) Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuari Gernikako Estatu ere esaten zaio.
- 4b) Hautesleek zuzenean hautatzen dute lehendakaria, lau uterik behin egiten diren hauteskundeetan.
- 4c) Lehendakariak promulgatzen ditu Eusko Legebiltzarreko legeak.
- 4d) Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionarioen estatutua Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa da, baina Estatuak funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarrien gainean duen eskumena errespetatu behar du.

5 ZEIN DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKUSIBOA?

- 5a) Ingurumenaren gaineko eskumena.
- 5b) Udal barrutien mugaketak, lurralde historikoei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.
- 5c) Laneko legeria.
- 5d) Arrantza-arloaren antolamendua.

6 NOIZKOA DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA?

- 6a) 2004koa.
- 6b) 2006koa.
- 6c) 2003koa.
- 6d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

7 ZEINEK ONARTU ZITUEN GENEROAREN ARABERAKO INPAKTUAREN EBALUAZIOA EGITEKO ZEIN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK KENTZEKO ETA HAIEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK SARTZEKO JARRIBIDEAK?

- 7a) Emakundek.
- 7b) Gobernuaren Kontseiluak, akordio baten bidez.
- 7c) Gasteizko Legebiltzarrak.
- 7d) Onartzeke daude.

8 SARBIDE ELEKTRONIKOARI BURUZ INDARREAN DAUDEN LEGEEN ARABERA...

- 8a) Administrazioak, ez badu nahi, ez du agiri elektronikoak euskarri elektronikoan gorde beharrik.
- 8b) Administrazioak hautatzen du beti zein aplikazio baliatu nahi duen herritarrekiko harremanetan, zenbat balio duen alde batera.
- 8c) Kasuan kasuko administrazio publikoaren zerbitzarien kokalekua da egoitza elektronikoa.
- 8d) Herritarrek izapideak elektronikoki egiten laguntzeko prestatutako langileak izango ditu Administrazioak.

9 ORDENAMENDUKO ZEIN ARAUK DAUKA ZUZENENKO LEGETIMITATE DEMOKRATIKOA, HERRIAREN ORDEZKARITZAREN ARAUTZE-JARDUERAREN ONDORIO DIRELAKO?

- 9a) Arau guztiek; izan ere, estatu demokratiko batean bizi gara, non erakunde guztiak demokratikoki hautatzen diren.
- 9b) Legeek bakarrik.
- 9c) Konstituzioak bakarrik.
- 9d) Legeek eta Espainiako Konstituzioak.

10 LEGE-DEKRETUAK:

- 10a) Gobernuak onartzen ditu, gehiengo osoz.
- 10b) Gobernuak onartzen ditu, Legebiltzarrak baimena, berariaz edo tazituki, eman ondoren.
- 10c) Ezin dituzte Konstituzioaren I. Tituluan arautzen diren funtsezko eskubideetan eragiten dituzten materiak arautu.
- 10d) Promulgatu eta 30 egun igaro ondoren hasten dira indarrean.

11 ABOKAZIOA:

- 11a) Hierarkiaren printzipioaren arabera, teknika horren bitartez, Administrazioako organo batek jarrai dezake funtzionatzen titularririk izan gabe ere, edota titularra kanpoan edo gaixorik badago.
- 11b) Konpetentzia-printzipioaren arabera, teknika horren bitartez, goragoko organoek aukera dute beharagoko organoren baten eskumena kasu jakin batean gauzatzeko.
- 11c) Hierarkia-printzipioaren arabera, teknika horren bitartez, goragoko organoek aukera dute beharagoko organoren baten eskumena kasu jakin batean gauzatzeko.
- 11d) Organoen arteko lankidetzako teknika bat da, baita administrazioen artekoa ere.

12 INDARREAN DAUDEN LEGEEN ARABERA, ERREFUSATZEARI AZKAR EMAN BEHAR ZAIO KONPONBIDEA...

- 12a) Eta errefusatuak astebete dauka esan beharrekoa esateko.
- 12b) Eta errefusatuak egun bat dauka esan beharrekoa esateko.
- 12c) Eta errefusatuak bost egun natural dauka esan beharrekoa esateko.
- 12d) Eta errefusatuak lehenbailehen esan behar du esan beharrekoa.

13 NON SARTZEN DA ADMISTRAZIO PROZEDURAREN ARAUBIDEA?

- 13a) Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legean.
- 13b) Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko Legean.
- 13c) Konstituzioan.
- 13d) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean.

14 INDARREAN DAUDEN LEGEEN ARABERA,...

- 14a) Pertsonak, oro har, ez dute sarbide zuzenik artxiboetara.
- 14b) Informaziora sarbide izateko eskubidearen titulartasuna mugatua da.
- 14c) Dokumentu publikoetara sarbidea izateko eskubidea ohiz kanpokoa da.
- 14d) Aurreko erantzun horien artean bat ere ez da zuzena.

15 ZER DA EGINTZA PLURAL BAT?

- 15a) Gaiaren funtsa zeharka erabakitzen duena.
- 15b) Aurkaratu daitekeena.
- 15c) Orokorra da, eta, horrenbestez, zehaztu gabeko pertsonen kopuru bati zuzentzen zaio.
- 15d) Defentsa gabezia sortzen duena.

16 SAILBURUORDEZAK SAILBURUAREN ESKUMENEKOA DEN EGINTZA BAT EMATEN BADU...

- 16a) Egintza deuseztagarria eta konbalidatu daiteke.
- 16b) Egintza deuseztagarria da, baina ez konbalidagarria.
- 16c) Egintza erabat deuseza da beti.
- 16d) Egintza hori ez dagoela ulertzen da.

17 DATU HAUETATIK, BAT EZ DA EZINBESTEKOTZAT JOTZEN PROZEDURA BATI EKITEKO ESKABIDE-ORRIAN, ZEIN?

- 17a) Zein administrazio-unitatera jotzen den.
- 17b) Eskabidea zer ordutan aurkeztu den.
- 17c) Eskatzailearen sinadura.
- 17d) Eskabidearen oinarri diren gertakariak.

18 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 18a) Administrazioak edozein unetan alda ditzake eskabideak eta errekursoak aurkezteko epeak.
- 18b) Administrazioak arauak ezarritako epeak laburtu ditzake, baina inoiz ez errekursoak aurkeztekoak.
- 18c) Administrazioak arauak ezarritako epeak laburtu ditzake, baina inoiz ez eskabideak aurkeztekoak.
- 18d) Administrazioak ez baditu epeak betetzen, erantzukizunak eskatu ahal zaizkio.

19 NOIZ EBATZI BEHARKO DA EGINTZA KALTEGARRIZAT JOTZEKO ESPEDIENTEA?

- 19a) Egintza administratiboa eman zenetik sei hilabete igaro baino lehen.
- 19b) Egintza administratiboa eman zenetik sei urte igaro baino lehen.
- 19c) Egintza administratiboa eman zenetik lau urte igaro baino lehen.
- 19d) Prozedura hasi baino lau hilabete igaro baino lehen.

20 ADMINISTRAZIOAK...

- 20a) Ezin ditu egintza deuztagarriak ofizioz berrikusi.
- 20b) Ezin ditu egintza desezak ofizioz berrikusi.
- 20c) Ezin du inolako egintzarik berrikusi.
- 20d) Mota guztietako egintzak berrikusi ditzake, ofizioz.

21 ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUN JURIDIKOA...

- 21a) Diziplinazkoa baino ez da.
- 21b) Zigorrezkoa baino ez da.
- 21c) Ondarezkoa baino ez da.
- 21d) Diziplinazkoa, zein zigorrezkoa, zein ondarezkoa da.

22 NOLA DEITZEN ZAIO ERRUZ SORTUTAKO KALTE BATEN ORDAINIAN ORDAINDUTAKO ZATI BAT ERREKUPERATZEKO ADMINISTRAZIOAK AGINTARI BATEN AURREAN GAUZATZEN DUEN EGINTZARI?

- 22a) Kalte-ordaineko egintza.
- 22b) Errekuperazioko egintza.
- 22c) Konpentsazioko egintza.
- 22d) Itzulerako egintza.

23 DATU PERTSONALAK BABESTEARI DAGOKIONEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN...

- 23a) Ez dago datuak babesteko legerik.
- 23b) Estatuko legea baino ez dago.
- 23c) Lege bakarra eman zen, Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzekoa.
- 23d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

24 DATUAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA...

- 24a) Bitzitza sexualari buruzko datuak tratatu daitezke kasu batean soilik: titularraren berariazko adostasuna, idatzizkoa, izanez gero.
- 24b) Osasunari buruzko datuak tratatu daitezke kasu batean bakarrik: titularraren berariazko adostasuna, idatzizkoa, izanez gero.
- 24c) Pertsona baten arrazarekin zerikusia duten datuak tratatu daitezke, titularraren berariazko adostasuna izanez gero (ez da beharrezkoa idatzizkoa izatea).
- 24d) Pertsona baten erlijioarekin zerikusia duten datuak tratatu daitezke, titularraren berariazko adostasuna izanez gero (ez da beharrezkoa idatzizkoa izatea).

25 ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUA...

- 25a) Estatuko lege batek arautzen du.
- 25b) Euskal Funtzio Publikoaren Legeak arautzen du.
- 25c) Eusko Jauriaritzaren dekretu batek arautzen du.
- 25d) Langileen Esatutuak arautzen du.

26 AUTONOMIA ADMINISTRAZIO OROKORREKO FUNTZIONARIOEK EGINDAKO ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK...

- 26a) 2 urte igaro ondoren iraugiko dira.
- 26b) 5 urte igaro ondoren iraugiko dira
- 26c) Urtebete pasa ondoren iraugiko dira.
- 26d) 3 urte igaro ondoren iraugiko dira

27 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAREN ARABERA, LANPOSTU BATEN TITULARRA HIZKUNTZA ESKAKIZUNA BETETZETIK SALBUETSI DAITEKE...

- 27a) Berez, planifikazio-aldi bakoitzaren hasieran berrogeita hamabost urte baino gehiago baditu.
- 27b) OHO baino ikasketa-maila gutxiago badauka.
- 27c) Ez badu Euskal Autonomia Erkidegoan ikasi.
- 27d) Ezin da, inola ere.

28 ADMINISTRAZIO MODERNOAREN BAITAN OINARRIZKOA DA “BEZEROAK” BEHAR BEZALA IDENTIFIKATZEA ETA SEGMENTATZEA. ZER ERABILIKO DA HORRETARAKO?

- 28a) CRM moduko lanabesak (bezeroekiko harremanak kudeatzeko programa).
- 28b) CRM moduko lanabesak (herritarrekiko harremanak eraginkortasunez eta azkar bideratzeko programa).
- 28c) GRC moduko lanabesak (bezeroekiko harremanak kudeatzeko programa).
- 28d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

29 ADMINISTRAZIOAREN ZENBAIT INFORMAZIO-MOTA DAUDE, ZERI BURUZKOAK DIREN KONTUAN HARTUTA; ZEINTZUK?

- 29a) Garrantzitsua eta kontingentea.
- 29b) Administrazioari buruzkoa eta partikularra.
- 29c) Administrazioari buruzkoa eta herritarrei buruzkoa.
- 29d) Ez dago zenbait informazio-mota, baizik eta informazio desberdinak.

30 ADMINISTRAZIOKO TERMINOLOGIA HIZKUNTZA EZ SEXISTARI EGOKITZE ALDERA, HARTZAILEEN ARABERA, HONAKO HAUEK BEREIZ DITZAKEGU:

- 30a) Agiri itxiak eta agiri irekiak.
- 30b) Agiri publikoak eta agiri pribatuak.
- 30c) Agiri orokorrak eta agiri zehatzak.
- 30d) Ez da agiri-bereizkitarik egiten.

31 DOKUMENTU HAUETATIK, ZEINTZUK EZ DITUZTE ERABILTZEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HERRITARREKIN KOMUNIKATZEKO?

- 31a) Akordioak.
- 31b) Jakinarazpenak.
- 31c) Gutunak.
- 31d) Ziurtagiriak.

32 DOKUMENTU-MOTAK: DOKUMENTUAREN HELBURUA IRITZIA EMATEA BADA,...

- 32a) Agindu bat erabiliko da.
- 32b) Gutun bat erabiliko da.
- 32c) Dekretu bat erabiliko da.
- 32d) Aurreko dokumentatik batek ere ez du iritzia ematea lehentasunezko helburu.

33 DOKUMENTU-MOTAK: DOKUMENTUAREN HELBURUA INFORMATZEA BADA,...

- 33a) Liburuxka bat erabiliko da.
- 33b) Eskabide bat erabiliko da.
- 33c) Akta bat erabiliko da.
- 33d) Aurreko dokumentatik batek ere ez du informatzea, oro har, helburu nagusizat.

34 ZEIN DA LANEKO ARRISKUEI AURREA HARTZEKO 31/1995 LEGEAREN HELBURU NAGUSIA?

- 34a) Laneko arriskuak prebenitzea.
- 34b) Langileen osasuna babestea.
- 34c) Langileek izan ditzaketen laneko eta osasuneko arriskuak ebaluatzea.
- 34d) Langileen segurtasuna eta osasuna babestea, laneko jardueratik datozkien arriskuen aurrean.

35 ADMINISTRAZIO PUBLIKO GUZTIEN LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO PLANAK...

- 35a) Eragindako pertsonak, izen eta guzti, jaso behar ditu, nahitaez.
- 35b) Prebentziorako esleitutako kopuruak jaso behar ditu, nahitaez.
- 35c) Lantokian arriskuen prebentzioa egiteko behar diren bitartekoak jaso behar ditu, nahitaez.
- 35d) Egokitzen jotzen duena jaso dezake.

36 NORBAIT ALDITXARTZEN BADA, ETA HASTEN DA KONBULTSIO MUGIMENDU BORTITZAK EGITEN. ZER EGIN BEHAR DA?

- 36a) Ez zaizkio ahoan hatzak sartu behar.
- 36b) Edateko eman behar zaio.
- 36c) Heldu behar zaio, konbultsio-mugimenduak egiten baditu.
- 36d) Arnasketa artifiziala egin behar zaio.

37 NORBAITEK ESTROPEZU EGIN ETA BIHURRITUA EGITEN DU: ZER EGIN BEHAR DA?

- 37a) Reflex edo antzeko substantzia bat bota.
- 37b) Zapi beroak jarri.
- 37c) Masajeak egin.
- 37d) Bihurritako atalean izotza jarri.

38 ZER EGIN BEHAR DA NORBAIT ERRETZEN BADA?

- 38a) Hoztu erretako zona, ur askorekin bustiz.
- 38b) Azalari itsatsita geratutako arropa kendu.
- 38c) Edateko eman erre denari.
- 38d) Pomadak eman erreduran.

39 ESPAINIAKO KONSTITUZIOA: SETIO-EGOERA...

- 39a) Hondamendi natural handiei aurre egiteko ezartzen da.
- 39b) Istripu handiei aurre egiteko ezartzen da.
- 39c) Ordena publikoaren urratze larriei aurre egiteko ezartzen da.
- 39d) Estatuaren beraren aurka zuzenean egindako erasoei aurre egiteko ezartzen da.

40 ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAKETA: UDALERRIAZ GAINDIKO ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEA...

- 40a) Autonomia-erkidegoen eskumena da.
- 40b) Udalen eskumena da.
- 40c) Estatu zentralaren eskumena da.
- 40d) Probintziaren eskumena da.

41 EKONOMIA ITUNA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUKO ZEIN TITULUTAN ARAUTZEN DA?

- 41a) III. tituluan.
- 41b) IV. tituluan.
- 41c) V. tituluan.
- 41d) Atariko Tituluan.

42 ITSAS SALBAMENDUAREN ESKUMENA...

- 42a) Ez da inola ere Euskal Autonomia Erkidegoarena.
- 42b) Lurralde historikoen eskumen eskusiboa da.
- 42c) Betearazte-eskumena da, Euskal Autonomia Erkidegoarena.
- 42d) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa da

43 BIZITZAREN EREMU GUZTIETAN SEXUA DELA ETA GERTATZEN DIREN EGITATEZKO EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK...

- 43a) Alderantzizko diskriminazioa deitzen dira, Berdintasunaren Legean.
- 43b) Ekintza positiboko neurriak deitzen dira, Berdintasunaren Legean.
- 43c) Diskriminazio femeninoko neurriak deitzen dira, Berdintasunaren Legean.
- 43d) Ez zaie inolako izen berezirik ematen Berdintasunaren Legean.

44 PRINTZIO HAUETATIK, ZEIN EZ DA ADMINISTRAZIOARI APLIKATU BEHARREKO PRINTZIO OROKOR GISA JASOTZEN HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETARA SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA?

- 44a) Herritarren bermeak oso-osorik gordetzearen printzipioa.
- 44b) Berdintasun-printzipioa.
- 44c) Arauketa-printzipioa.
- 44d) Herritarrek informazioa iritsi ahal izateko printzipioa.

45 HAUETATIK, ZEIN EZ DA LEGE-MAILAKOA?

- 45a) Legegintza-dekretua.
- 45b) Konstituzioa.
- 45c) Lege organikoa.
- 45d) Lege-dekretua.

46 ADMINISTRAZIO-ANTOLAMENDUA, ORGANOEN ARTEKO GATAZKAK: ORO HAR,...

- 46a) Dagokion sailak ebazten ditu beti eskudantzia-gatazkak.
- 46b) Eragindako organoen artean ebazten dira eskudantzia-gatazkak.
- 46c) Administrazioarekiko auziaren jurisdikzioan ebazten dira beti eskudantzia-gatazkak.
- 46d) Hierarkian goragoko organo erkideak ebazten ditu beti eskudantzia-gatazkak.

47 ADIERAZI ZEIN DEN BAIEZTAPEN OKERRA:

- 47a) Zuzenbide publikoko erakundeak ez daude ezertan ere Administrazio Prozeduraren Legearen mende.
- 47b) Betebeharrak harreman juridiko zehatzen ondorio dira.
- 47c) Administrazio Publikoek kontratuak egitea ez dago araututa Administrazio Prozeduraren Legean.
- 47d) Herritarra eskubide baten titularra den egoeretan, Administrazioari zerbitzu publiko bat emateko eskatu ahal dio.

48 NOR JOTZEN DA DATUAK IKUSTEKO PANTAILEN (DIP) ERABILTZAILTZAT?

- 48a) Ekipoarekin benetan lanean astean sei ordu baino gehiago ematen dituena.
- 48b) Ekipoarekin benetan lanean astean zortzi ordu baino gehiago ematen dituena.
- 48c) Ekipoarekin benetan lanean astean hamar ordu baino gehiago ematen dituena.
- 48d) Ekipoarekin benetan lanean astean bost ordu baino gehiago ematen dituena.

49 DATUAK IKUSTEKO PANTAILEKIN EGITEN DEN LANA: ZEREGINAK ESKATZEN DUEN IKUSMEN-ZOLITASUNA ALTUA DENEAN, ARGIZTAPENAREN ZENBATEKO INTENTSITATE-MAILA AHOLKATZEN DA?

- 49a) 300 lux
- 49b) 1.000 lux
- 49c) 100 lux
- 49d) 500 lux

50 LAN EGITEKO EROSOTASUN-TENPERATURA:

- 50a) Neguan ez da 22^º-tatik behera egongo.
- 50b) Neguan ez da 21^º-tatik behera egongo.
- 50c) Neguan ez da 20^º-tatik behera egongo.
- 50d) Neguan ez da 23^º-tatik behera egongo.

ORDEZKO GALDERAK

51 BI MOTATAKO ADMINISTRAZIO-ERREGISTRO DAUDE:

- 51a) Orokorrak eta partikularrak.
- 51b) Orokorrak eta osagarriak.
- 51c) Publikoak eta pribatuak.
- 51d) Handiak eta txikiak.

52 ADMINISTRAZIO EGINTZA: EAE-KO EDOZEIN UDALERRITAKO UDAL BATEK PARKEKO BANKU BAT KONPONTZEA...

- 52a) Desioko administrazio-egintza bat da.
- 52b) Borondatezko administrazio-egintza bat da.
- 52c) Administrazio-egintza material bat da.
- 52d) Berez ez da administrazio-egintza bat.

53 ZIURTAGIRI BAT EGITEA...

- 53a) Desioko administrazio-egintza bat da.
- 53b) Jakinarazpeneko administrazio-egintza bat da.
- 53c) Jarduera material hutsa da.
- 53d) Borondatezko egintza bat da.

54 HERRITAR BATEK AURKEZTUTAKO IDAZKI BATEK EZ BADU BETETZEN ADMINISTRAZIO PROZEDURAREN LEGEAREN 70. ARTIKULUAN EZARRITAKO BETEBEHAR MATERIALEN BAT...

- 54a) Administrazioak eskatu ahal dio herritarrari, egokituz joz gero, nahi badu bost eguneko epean akatsa konpon dezan.
- 54b) Administrazioak ezin dio eskatu herritar horri akats hori konpon dezan; herritarrak berak eskatu beharko du zuzenketa.
- 54c) Administrazioak eskatu behar dio herritarrari hamar eguneko epean akatsa konpon dezan.
- 54d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

55 AKATS MATERIAL BAT

- 55a) Ezin dira ofizioz zuzendu.
- 55b) Ezin da ofizioz zuzendu, ezta interesdunek eskatuta ere.
- 55c) Ofizioz edo interesdunek eskatuta zuzendu liteke.
- 55d) Ez dago akats materialik, indarrean dauden legeen arabera.

LEHEN PROBAREN LEHEN ZATIAREN BUKAERA

101.etik 210. arteko galderak lehen probaren bigarren zatiari dagozkio

101 1720/2007 DPBLOGAk (Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoa garatzeko Araudiak) segurtasunaren gaineko agiriaz honako hau zehazten du:

- 101a) Fitxategi automatizatuen kasuan baino ez da aplikatuko.
- 101b) Automatizatuta ez dauden fitxategien kasuan aplikatuko da, salbuespenez.
- 101c) Fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak egingo du.
- 101d) Informazio-sistemetara iristeko bidea duten langileek ez dute agiri hori derrigorrean bete beharko.

102 Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko eskubideei dagokienez, 1720/2007 DPBLOGAk hau esaten du:

- 102a) Eskubide horiek bere-berezko izaera dute, eta ukatu egingo dira eskaera egiten duena ez bada tartean dena, eta pertsona horrek ez badu egiaztatzen tartean denaren ordezkio gisa diharduela.
- 102b) Eskubide horiek elkarri lotutakoak eta elkarren mendekoak dira, eta arautegi honek ezarritako hurrenkeran egikarituko dira.
- 102c) Aipatutako eskubideak gauzatzetik etorritako gastuak interesdunaren kontura izango dira.
- 102d) Tratamenduaren arduradunak ez dio erantzun behar izango egiten dioten eskaerari, bere fitxategietan eragindako pertsonaren datu pertsonalik ez badago.

103 Genero-indarkeriarekin zerikusia duten datuak dauzkaten fitxategietan, 1720/2007 DPBLOGAk honelako segurtasun-neurriak aplikatuko direla ezartzen du:

- 103a) Oinarrizko mailakoak.
- 103b) Maila ertainekoak.
- 103c) Maila altukoak, oinarrizko mailako eta maila ertainekoez gain.
- 103d) Maila berezikoak, polizia-fitxategietan sartu beharreko datuak direlako.

104 2/2004 Legeak, Otsailaren 25ekoak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoak, esaten du *“Datuen babesarekin zerikusi funtsezkoa ez duten gauzetan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak halako informazio bat eskatzen duenean legez dagozkion aginpideak bete beharrez, informazio hori ez ematea”*...

- 104a) Arau-hauste arina dela.
- 104b) Arau-hauste larria dela.
- 104c) Arau-hauste oso larria dela.
- 104d) Ez dela arau-haustea.

105 “Sinadura elektronikoa onartua”ren osagaiek honako hauek bermatzen dituzte:

- 105a) Konfidentzialtasuna, integritatea eta arbuioa.
- 105b) Informazioa konfidentziala eta isilpekoa izatea, eta hartzaileak ez arbuiatzea.
- 105c) Informazioaren integritatea eta egiazkotasuna, eta arbuiorik ez izatea.
- 105d) Bidalitako informazioaren sekretua eta autentifikazioa.

106 Ondorengo zein erantzunetan agertzen dira sinadura elektronikoiari buruzko 59/2003 Legean aipatzen diren sinadura elektronikoko mota guztiak?

- 106a) Eskuz egindako sinadura digitalizatua eta sinadura elektronikoa aurreratua.
- 106b) Sinadura elektronikoa orokorra edo sinplea, sinadura elektronikoa aurreratua, eta sinadura elektronikoa onartua.
- 106c) Sinadura digitala eta eskuz egindako sinadura.
- 106d) Loteslea ez den sinadura elektronikoa, sinadura elektronikoa aurreratua, eta sinadura elektronikoa onartua.

107 59/2003 Legeak ziurtapen-zerbitzuak ematen dituenak honako hau egin behar duela ezartzen du:

- 107a) Zerbitzuak eskaini dizkion pertsona horren sinadura sortzeko datuak biltegitzea.
- 107b) Zerbitzuak eskaini dizkion pertsona horren sinadura sortzeko datuak biltegitzea eta kopiatzea.
- 107c) Erantzukizun zibileko aseguruia eratu beharko du, gutxienez 1.000.000 eurokoa, egon daitezkeen arduragabekeriei aurre egiteko.
- 107d) Ziurtagirien iraunaldiari buruzko kontsulta-zerbitzu azkarra eta segurua bermatzea.

108 59/2003 Legeak, “Lege honen arabera, horretarako eskumena duten organoen ikuskapenari jazarzea, trabak jartzea, ez egiteko aitzakia jartzea edo justifikaziorik gabe uko egitea, eta Zientzia eta Teknologia Ministerioak, ikuskatzeko eta kontrolatzeko daukan funtzioaren barruan, eskatutako informazioa ez aurkeztea edo gaizki aurkeztea” honelako arau-haustea dela zehazten du:

- 108a) Arina.
- 108b) Larria.
- 108c) Oso larria
- 108d) “Salbuespenezko”tzat tipifikatua.

109 Sinadura elektronikoko gailuei buruz, 57/2003 Legearen arabera, adierazi zein den erantzun zuzena.

- 109a) Sinadura sortzeko gailu bat sinadura egiaztatzekeo datuak aplikatzeko balio duen programa edo sistema informatiko bat da.
- 109b) Sinadura sortzeko gailu seguru batek sinadura modu fidagarrian egiaztatuko dela bermatzen du.
- 109c) Sinadura egiaztatzekeo datuak sinatzaileak sinadura elektronikoa sortzeko erabiltzen dituen datuak dira, adibidez kodeak edo gako kriptografiko publikoak.
- 109d) Sinadura sortzeko datuak sinatzaileak sinadura elektronikoa sortzeko erabiltzen dituen datu bakunak dira, adibidez kodeak edo gako kriptografiko pribatuak.

110 Herritarrek zerbitzu publikoak baliabide elektronikoen bitartez erabiltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen arabera, adierazi ezazu zein diren herritarrek administrazio publikoekin harremanetan jartzeko erabili ditzaketen sinadura elektronikoko sistemak:

- 110a) Agintari eskudunek onartutako sinadura elektroniko aurreratuen sistemak bakarrik.
- 110b) Oinarritzkoa eta orentzat izanik, nortasun agiri nazionalan, pertsona fisikoentzat, atxikitako sinadura elektronikoko sistemak.
- 110c) Sinadura elektroniko aurreratuko sistemak bakarrik, sinadura elektronikoko beste sistema batzuekin batera, adibidez erregistro batean aldeztu aurretik erabiltzaile gisa hitzartutako gakoak erabiltzeko sistemak.
- 110d) Nortasun agiri nazionalan, pertsona fisikoentzat, atxikitako sinadura elektronikoko sistemak bakarrik.

111 11/2007 Legearen arabera, adierazi ondorengo aukeretatik zein den administrazio-jardura automatizaturako erabiltzen den sinadura elektronikoko sistema:

- 111a) Atributu hedatuko ziurtagiria, administrazioari atxikitako zuzenbide publikoko erakunde edo organo juridikoarena
- 111b) Langileen sinadura elektronikoko sistemak, aldi berean identifikatzen dituztenak lanpostuaren edo karguaren titularra eta bere zerbitzuak ematen dituen Administrazioa edo organoa.
- 111c) Herri-administrazio, organo edo erakundeari eta, hala balegokio, agiria sinatzen duen pertsonari lotutako egiaztapen-kode segurua.
- 111d) Administrazioarekin lotura duten langileen nortasun agiri nazionalan oinarritutako sinadura elektronikoa.

112 Administrazioaren prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili behar diren arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuaren arabera, administrazioek datuak zerbitzu honen bidez bidaliko dizkiote elkarri:

- 112a) Jakinarazpen-zerbitzu horizontala.
- 112b) Balioztatzeko zerbitzua eta hirugarrenak.
- 112c) Kontsulta-zerbitzua.
- 112d) Sinadura elektronikoa gauzatzeko eta egiaztatzeko zerbitzua.

113 Administrazio elektronikoaren esparruan elkarreraginkortasuneko eskema nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuaren arabera, dokumentuak berreskuratzea eta kontserbatzea dela-eta, dagokion organoak sinatutako Aurkibide Elektronikoa egon behar da. Zeri lotuta dago betebehar hori?

- 113a) Espediente elektronikoari.
- 113b) Dokumentu elektronikoari.
- 113c) Gutxienez eta nahitaez sartu beharreko metadatuak elkartzeari.
- 113d) Dokumentu-kudeaketaren politikari.

114 Administrazio elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuaren arabera, segurtasun-politikan EZ da kontuan hartu behar izango:

- 114a) Jarduera-erregistroa.
- 114b) Profesionaltasuna.
- 114c) Sistemaren integritatea eta eguneratuta egotea.
- 114d) Datuak finkatzeko sistema.

115 Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko 72/2008 Dekretuaren arabera, hauek erregistratu behar dira:

- 115a) EAEko Administrazio Orokorraren edozein erregistrotan aurkezten edo jasotzen diren komunikazioak, igorlea nor den jakinez gero betiere.
- 115b) EAEko Administrazio Orokorraren edozein erregistrotan aurkezten edo jasotzen diren eskaera, idazki edo komunikazio guztiak, nahiz eta igorlea nor den jakin ez.
- 115c) Publizitate-dokumentuak, merkataritzakoak edo gisa horretakoak direnak, betiere norako diren zehazten bada.
- 115d) Eskaera, idazki edo komunikazio bati eranskin gisa atxikitako dokumentuak, igorlea nor den jakinez gero betiere.

116 Informazioaren Gizartea bultzatzeko neurriei buruzko 56/2007 Legearen arabera, garrantzi ekonomiko handiko enpresek, herritarrei zerbitzuak eman ahal izateko, harreman telematikoetarako modua eskaintzeko betebeharra dute, beren bezeroen hainbat eskubide egikaritzearekin lotutako izapideak egiteko. Zein dira izapide horiek?

- 116a) Bezeroaren datuak eguneratzea; datu horiek azken hiru urteetako, gutxienez, fakturazio-historiari eta egindako kontratuari buruzko informazioa izango dute.
- 116b) Garrantzi ekonomiko handiko enpresen arteko datuen transmisioa.
- 116c) Kexa, intzidentzia, iradokizun, eta halakorik balego, erreklamazioen erabateko tramitazioa.
- 116d) Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko izapideak, datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoaren arabera.

117 Ekainaren 8ko 108/2004 Dekretuak Interneten egoteko eredua arautu zuen. Bertan ezarritako guztia hauei aplikatuko zaie:

- 117a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrari, haren erakunde autonomoei eta Osakidetzari.
- 117b) Bakarrik sailei eta haien erakunde autonomoei.
- 117c) EAEko administrazio-erakunde guztiei: sailei, erakunde autonomoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei edo sozietate publikoei.
- 117d) EAEn diharduten erakunde publiko guztiei.

118 108/2004 Dekretuak xede-taldeentzako eta arlokako atariak zehazten ditu. Ondorengoetatik, zein ez da agertzen I. Eranskinean arlokako atari gisa?

- 118a) Etengabeko ikasketa.
- 118b) Herritarrak.
- 118c) Turismoa.
- 118d) Etxebizitza.

119 Zein da EPROM motako memoriaren ezaugarri nagusia?

- 119a) EPROM motako memoriarik ez dago; Bakarrik daude ROM motako memoriak eta RAM motakoak.
- 119b) Behin bakarrik programatu daitezke, baina irakurri, nahi den beste aldiz irakur daitezke.
- 119c) Berariazko teknologia batzuen bidez programatu eta ezabatu daitekeen ROM motako memoria berezi bat da.
- 119d) Elektrikoki nahi den beste aldiz programatu eta ezabatu daitekeen memoria berezi bat da.

120 Ordenagailuen barne-logika Boole-ren aljebran oinarritzen da. Zeintzuk dira erabiltzen diren oinarrizko hiru eragiketak?

- 120a) OR XOR NOT
- 120b) OR XOR AND
- 120c) OR AND NOT
- 120d) OR NAND NOT

121 1001 zenbakia oinarri bitarrean, zein zenbakiren baliokidea da oinarri hamartarrean eta hamaseitarrean, hurrenez hurren?

- 121a) 9 hamartarrean eta A hamaseitarrean.
- 121b) 9 hamartarrean eta 9 hamaseitarrean.
- 121c) 10 hamartarrean eta A hamaseitarrean.
- 121d) 10 hamartarrean eta 9 hamaseitarrean.

122 Zer da ALU?

- 122a) Prozesatzeko unitate zentralaren (CPU) zati bat da.
- 122b) Memoriaren zati bat da.
- 122c) Eragiketatarako bus-aren zati bat da.
- 122d) Sarrerako multiplexadorearen zati bat da.

123 Mihizadura-lengoaia (Assembly language) programazio-lengoi bat da, eta ...

- 123a) Goi-mailakoa da eta korrelazio zuzena du Java lengoiarekin.
- 123b) Goi-mailakoa da eta korrelazio zuzena du makina-kodearekin.
- 123c) Behe-mailakoa da eta korrelazio zuzena du makina-kodearekin.
- 123d) Behe-mailakoa da eta korrelazio zuzena du Java lengoiarekin.

124 Zer da cache memoria?

- 124a) Abiadura moteleko eta tamaina handiko memoria da, prozesadorea une horretan erabiltzen ari den datu guztiak biltegitratzen dituena.
- 124b) Abiadura handiko eta tamaina txikiko memoria da, prozesadorea une horretan erabiltzen ari den datu guztiak biltegitratzen dituena.
- 124c) Abiadura moteleko eta tamaina handiko memoria da, prozesadoreak handik gutxira behar ditzakeen datuak biltegitratzen dituena.
- 124d) Abiadura handiko eta tamaina txikiko memoria da, prozesadoreak handik gutxira behar ditzakeen datuak biltegitratzen dituena.

125 Sistemaren funtzionamendua normala denean, zer gertatzen da hardwareko gailu batek etenaldi bat eragiten duenean?

- 125a) Erabiltzaile-programa egikaritzen bukatzen da, zerbitzu-errutina exekutatzen da eta erabiltzaile-programa berrabiarazten da.
- 125b) Exekutatzen ari zen erabiltzaile-programa aldi batez eteten da, zerbitzu-errutina exekutatzen da, eta programara itzultzen da, gelditutako puntu berera.
- 125c) Zerbitzu-errutina exekutatzen da, erabiltzaile-programa bukatzen da, eta ondoren berriro exekutatzen da.
- 125d) Hardwareko gailuarekin lotura duen zerbitzu-errutina exekutatzen da, erabiltzaile-programan eraginik izan gabe.

126 Zeintzuk dira gaur egun gehien erabiltzen diren fitxategi-sistemak?

- 126a) NTFS, FAT32, VTS, EXT3, HFS+
- 126b) NTFS, FAT32, EXT3, EXT4, HFS+
- 126c) NTFS, FATT, EXT2, EXT3, HFS+
- 126d) NTFS, FATT, EXT3, EXT4, HFS+

127 Ordenagailu-sare bat daukagu, zeinetan, horietako batek huts egiten badu, gainerako guztiak informazioa jasotzen jarraitu ahal baitute, beste edozein ordenagailuren bidez. Zein sare-motaz ari gara?

- 127a) Eraztuna
- 127b) Izarra.
- 127c) Amarauna.
- 127d) Zuhaitza.

128 Ethernert 100Base-T4, 100Base-F, 100Base-FX...estandarretan, zer adierazten dute azpimarratu diren letrak edo letrek (T4, F, FX..)?

- 128a) Erabilitako modulazio-metodoa.
- 128b) Kanalaren gaineko abiadura (Megabit/segundo).
- 128c) Kablearen ezaugarriak.
- 128d) Segurtasun-protokoloa.

129 TCP/IP Internetera konektatutako ordenagailu guztiak erabiltzen duten oinarritzko protokoloa da. Zein da bere abantailarik handienetakoa?

- 129a) Ez du konfiguraziorik behar.
- 129b) Bideragarria da ("*routerragarria*"), eta edozein sistemarekin da bateragarri.
- 129c) Erabiltzen duen pakete-tamaina txikia da eta ezin da apurtu.
- 129d) OSI zazpi mailak lau geruzetan bakarrik sartzen ditu.

130 Zer esan nahi dute sigla hauek: CSMA/CD?

- 130a) Sarbide anizkoitza seinale eramaileen zerbitzuarekin eta talka askorekin.
- 130b) Sarbide anizkoitza seinale eramaileen detekzioarekin eta talka-detekzioarekin.
- 130c) Sarbide bakarra talka askorekin eta seinale eramaileen detekzioarekin.
- 130d) Seinale eramaile askoren sarbide bakarra eta talka-detekzioa.

131 Zein da sistemarik seguruena Wi-Fi haririk gabeko sareak babesteko?

- 131a) SWAP
- 131b) WAP
- 131c) WPA2
- 131d) WEP

132 Nola du izena Ingeniari Elektriko eta Elektronikoen Institutuaren 802 Lan-taldeak, Wi-Fi haririk gabeko sareei buruz, egindako arau edo estandarren multzoak?

- 132a) 802.1
- 132b) 802.3
- 132c) 802.11
- 132d) Ez dago IEEE 802 epigraferik.

133 Telekomunikazio mugikorren sistema unibertsalak (UMTS) hainbat protokolo eta irradi-teknologia erabiltzen ditu datuen transmisio-tasak handitzeko, eta GSM sistemak baino abiadura askoz handiagoak eskaintzen ditu. UMTSn erabiltzen diren ondorengo teknologietatik, adierazi zein den okerra.

- 133a) Paketeen behetik gorako sarbidea abiadura handian (HSUPA).
- 133b) Paketeen goitik beherako sarbidea abiadura handian (HSDPA).
- 133c) Banda zabaleko kode-bereizketa bidezko sarbide anizkoitza (WCDMA).
- 133d) Irrati bidezko paketeen zerbitzu orokorra (GPRS).

134 Arlo pertsonaleko haririk gabeko sareek (WPAN) honako hau erabiltzen dute:

- 134a) Bereziki kontsumo baxuko gailuentzat diseinatuta dagoen eta estaldura txikia duen «Bluetooth» izeneko komunikazio-protokoloa.
- 134b) OpenBTS komunikazio-azpiegitura.
- 134c) Banda zabaleko kode-bereizketa bidezko sarbide anizkoitza (WCDMA).
- 134d) Irrati bidezko paketeen zerbitzu orokorra (GPRS).

135 Enpresaren egoitzatik kanpo egonda, bertako baliabideak erabili behar izanez gero, Sare Pribatu Birtual (VPN) baten bidez egiten da. Ondorengo baieztapenetatik, zein da egiazkoa?

- 135a) «Advanced Encryption Standard» (AES) zifratze-algoritmoak bidalitako datuen integritatea bermatzen du.
- 135b) «Secure Hash Algorithm» (SHA) hash-algoritmoak bidalitako datuen konfidentziasuna bermatzen du.
- 135c) SSL segurtasun-protokoloak saio-geruzan (OSIren 5. maila) egiten du lan, eta horregatik aplikazioek erabili ahal dute, hura aldatu beharrik gabe.
- 135d) IPsec segurtasun-protokoloak sare-geruzan (OSIren 3. maila) egiten du lan, eta horregatik aplikazioek erabili ahal dute, hura aldatu beharrik gabe.

136 Hartzaile bati mezu elektronikoa bat bidali ahal izateko, honako zerbitzari-mota hau behar da:

- 136a) IMAP
- 136b) POP3
- 136c) SMTP
- 136d) SNMP

137 Fitxategiak transferitzeko protokoloaz (FTP) ari bagara, ondorengo baieztapenetatik zein da egiazkoa?

- 137a) Konexioan ahalik eta abiadurarik handiena eskaintzeko dago pentsatuta.
- 137b) Konexioan ahalik eta segurtasunik handiena eskaintzeko dago pentsatuta.
- 137c) Informazioa trukatzeko testu zifratua erabiltzen du.
- 137d) Ekipoak erabiltzen duen sistema eragilearen arabera da.

138 Hipertestua transferitzeko protokoloa/k (HTTP)...

- 138a) Ez dauka syntaxirik, bakarrik adierazten du zein den web-arkitekturako software-elementuek komunikatzeko erabiltzen duten semantika.
- 138b) Banku-erakundeekin transakzioak egitera dago bideratuta.
- 138c) Egoerarik gabeko protokolo bat da, eta ez du aurreko konexioei buruzko inolako informaziorik gordetzen.
- 138d) «*Uniformed Resource Location*» (URL) izeneko «baliabide» asko kontsumitzen dituen protokoloa da.

139 Hipertestua transferitzeko protokolo seguruan (HTTPS), nola bermatzen da segurtasuna?

- 139a) Kriptografia asimetrikoaren bidez. Sistema horrek gako publiko eta pribatuko ziurtagiriak erabiltzen ditu bidalitako eta jasotako informazioa zifratzeko.
- 139b) Konexio seguru zifratuko geruza baten bidez «*Secure Sockets Layer*» (SSL), edo garraio-geruzaren konexio seguru baten bidez «*Transport Layer Security*» (TLS).
- 139c) XML sinadura elektronikoa aurreraturen bidez, «*XML Advanced Electronic Signatures*» (XAdES).
- 139d) S-HTTP protokoloa erabiliz, PGP zifratzeko metodoarekin batera.

140 HTMLn, zer da <BODY> tag-a:

- 140a) Orrialdearen atributu guztiak zehazten ditu.
- 140b) Orrialdearen barruan nahitaez letra larriz jarri behar den argumentu bat da.
- 140c) Dokumentuaren edo orrialdearen gorputza irisgarria den zehazten du.
- 140d) Dokumentuaren gorputza edo orrialdearen edukia.

141 HTMLn, zein atributu erabiltzen da dokumentuan bertan estekak sortzeko (aingurak)?

- 141a) anchor
- 141b) name
- 141c) href
- 141d) src

142 HTMLn, "á" karakterea ("a" letra xehe azentuduna) honela definitzen da:

- 142a) ´
- 142b) @acute;
- 142c) ´
- 142d) ´

143 Nola idazten da iruzkin bat HTMLn?

- 143a) <rem iruzkina />
- 143b) <!-- iruzkina -->
- 143c) <@ iruzkina />
- 143d) <!-- iruzkina -->

144 HTMLk hainbat etiketa ditu, eta horien bidez tituluak garrantziaren arabera mailakatu daitezke. Zenbat garrantzi-maila jar daitezke, gehienez?

- 144a) 3 garrantzi-maila.
- 144b) 4 garrantzi-maila.
- 144c) 5 garrantzi-maila.
- 144d) 6 garrantzi-maila.

145 CSSn, *elementu baten !important arauen artean gatazka dagoenean, zeinek zehazten du lehentasun-hurrenkera ?*

- 145a) Erabiltzailearen estilo-orriak.
- 145b) Nabigatzailearen estilo-orriak.
- 145c) Egilearen estilo-orriak.
- 145d) Erabilitako html-bertsioak.

146 CSSn, # ikurrak bere adierazpenean erabiltzen duen hautagailu-mota hau da:

- 146a) Klasea
- 146b) Html etiketa
- 146c) Konposatua
- 146d) Id

147 CSSn, orrialde batean informazio zabala erakutsi ahal izateko, hau da erlantz-sistema bat egiteko modu erraza:

- 147a) Padding
- 147b) Hover
- 147c) Sliding Doors
- 147d) Tabber

148 CSSn, zein da elementu baten ikuspen-eremua (adibidez, irudi-editore batekin irudi bat mozten dugunean bezala) hautatzea ahalbidetzen digun propietatea?

- 148a) Clip
- 148b) Visibility
- 148c) Position
- 148d) Display

149 HTML orrialde batean, zein da agindu zuzena "gabonak.css" estilo-orria erabil dezan?

- 149a) <stylesheet href="gabonak.css" type="text/css" />
- 149b) <stylesheet href:"gabonak.css" type="text/css" />
- 149c) <link href:"gabonak.css" rel="stylesheet" type="text/css" />
- 149d) <link href="gabonak.css" rel="stylesheet" type="text/css" />

150 Web-orri batean, "esteka edo link" terminoez ari bagara, zein da erantzun zuzena?

- 150a) Erabiltzailea estekaren funtzioaz jabetu dadin, estekaren kolorea urdina izango da eta azpimarratuta egon behar da. Hori da forma zuzena bakarra.
- 150b) Estekaren tonalitatea aldatzeak, erakuslea gainean jartzen denean, ez du laguntzen erabiltzailea hura esteka dela jabetu dadin.
- 150c) Estekaren gainetik pasatzean, saguaren erakuslearen itxura aldatzea. Hori da araurik onartuena.
- 150d) Esteka ezingo da, inola ere, irudi batekin adierazi.

151 Interneten, eduki-kudeatzaileari buruz ari bagara, adierazi zein den erantzun OKERRA?

- 151a) Multimediako eduki digitala, hainbat formatutan, sortzeko, editatzeko, kudeatzeko eta argitaratzeko erabiltzen den aplikazio informatikoa da.
- 151b) Web-orri batean edukia eta diseinua, bakoitza bere aldetik, tratatzea galarazten du.
- 151c) Erabiltzaileak eskatutako web-orria sortzeko, zerbitzariarekin elkarreraginean, orrialde dinamikoak sortzen ditu eduki-kudeatzaileak; formatua aldeztatik dago zehaztuta, eta edukia zerbitzariko datu-basetik ateratzen du.
- 151d) Erabiltzaile gehiagok daukate aukera edukiak argitaratzeko, ez baita beharrezkoa programatzen jakitea.

152 Interneten, atariaz hitz egiten badugu, zein da baieztapen zuzena?

- 152a) Yahoo izan zen lehen atari ezaguna; 1974an sortu zen, web-helbideak sailkatzen hasi zirenean, haien kokapen zuzena jakin ahal izateko.
- 152b) Web-orriaren tituluak eta goiburuak, ez beste ezer, jartzeko lekua da.
- 152c) Interneten nabigatzen hasteko abiapuntua den webgune bati buruz hitz egiteko erabiltzen den termino bat da.
- 152d) Eskaintzen dituen zerbitzuen artean bilaketa-tresna eta txata nabarmentzen dira; posta elektronikoa ez, ordea.

153 Web-orri batez ari bagara, zein da erantzun OKERRA?

- 153a) Frame-ak web-orri batzuen leihoak zati txikiagotan banatzen dituzten guneak dira.
- 153b) Oro har, testu, irudi, soinu, bideo, animazio, marko eta formularioek osatzen dute.
- 153c) Web-gune bat Webmaster profil batek sortu, diseinatu, egituratu, maketatu, argitaratu eta sustatzen du, baita haren mantentze-lanak egin ere.
- 153d) Bannerrak beti Javarekin garatutako programak dira, eta animazio, joko eta elkarreraginaren bidez, web-orrien itxura hobetzeko balio dute.

154 Xede-taldeen arabera atarien sailkapena kontuan hartuta, nola deitzen dira gai espezifiko eta/edo espezializatueta interesa duten erabiltzaileei zuzendutakoak?

- 154a) Atari bertikalak.
- 154b) Atari zirkularrak.
- 154c) Atari mugikorak edo megatariak.
- 154d) Atari horizontalak.

155 Zein atributu erabili behar da ikus-elementu bakoitzaren funtzioa deskribatzeko, web-irisgarritasunaren barruan?

- 155a) alt
- 155b) image
- 155c) attrib
- 155d) vission

156 Hipertestu-esteketan, zer gomendatzen dute W3C irisgarritasun-arauek?

- 156a) "Sakatu hemen" literala erabiltzea.
- 156b) Testuingurutik kanpo irakurrita esanahia duen testua erabiltzea.
- 156c) Esteka errepikatzea, estekaren testua dokumentuaren barruan agertzen den bakoitzean.
- 156d) Erabiltzaileari ikuspegiak kontrolatzeko aukerarik ez ematea.

157 Web-irisgarritasunari dagokionez, zer gomendatzen da orri irisgarriak antolatzeke?

- 157a) Ahal denean, maketaziorako CSS erabiltzea.
- 157b) Estilo-orriak erabiltzea beti.
- 157c) Ahal den neurrian, CSS ez erabiltzea.
- 157d) CSS erabiltzea nahasgarria gerta daiteke.

158 Web-irisgarritasunari buruzko araei dagokienez, administrazio publikoetako interneteko orrietan dagoen informazioak...

- 158a) 1. lehentasuna baino ez du bete beharko.
- 158b) Gutxienez, 1. eta 2. lehentasunak bete beharko ditu.
- 158c) Gutxienez, 1, 2 eta 3. lehentasunak bete beharko ditu.
- 158d) Ez dago nahitaezko egokitzapen-mailarik.

159 Web-irigarritasunari dagokionez, webgune batek irigarritasun-jarraibideak betetzen dituen ala ez jakiteko...

- 159a) Ebaluazio-tresnak baino ez dira erabili behar.
- 159b) Nahikoa litzateke ebaluazio-test bat egitea.
- 159c) Ebaluatzaile batek parte hartzea nahitaezkoa da.
- 159d) Zehaztu daiteke webgune bat irigarria den, bakarrik CSS irigarriak erabilia.

160 Web-orri irigarriak sortzeko tresnak direla-eta, hauetatik zein ezaugarri EZ dira funtsezkoak?

- 160a) CSS eta HTML kode baliodunak ekoiztea.
- 160b) UAGk garatutako tresnak erabiltzea, baliozkoak direla ziurtatzeko.
- 160c) Zehaztapenen irigarritasuna.
- 160d) Erabiltzaileak pantailako oharrak, alerta-seinaleak, balioztatzea eta laguntza konfiguratzeko.

161 Adibide hauetatik, zein da irigarritasun-oztopo web-orrietan?

- 161a) Ordezko testua duten irudiak egotea.
- 161b) Pop-up leiho batean informazio garrantzitsua jartzea.
- 161c) "Diseinu likidoa" duten orrialdeak sortzea.
- 161d) Orrialdeetan "ogi-apurrak" egotea.

162 Erakunde baten negozioaren jarraipenerako planak aurreikusita dauka datuak prozesatzeko ordezkoko gune bat, lehen mailako prozesamendu-ahalmenaren % 30 har dezakeena. Hori kontuan hartuta, ...

- 162a) plana egokia dela esan daiteke, badakigulako, edozein erakundek aurrera egin ahal izateko, lehen mailako prozesamenduaren % 25 baino gutxiago dela kritikoa.
- 162b) plana berraztertu behar da, zeren eta, erakundearen funtzionamendu ona bermatzeko, lehen mailako prozesamenduaren % 50, gutxienez, kontratatuta egon behar baita.
- 162c) helburua betetzen duela egiaztatzeko, erakundearen aplikazio kritikoak identifikatu behar dira, eta ordezkoko guneak horiek guztiak prozesatzeko ahalmena duela ziurtatu behar da.
- 162d) nahitaez babes-gune erredundante bat kontratatu behar da, negozioaren jarraipena bermatzeko.

163 "Kontingentzia-plan" batean kontuan hartu beharreko alderdi bat hau da:

- 163a) Pertsonak duten garrantzia betetzen dituzten lanpostuetan.
- 163b) Segurutasunaren gaineko Agiria eguneratuta eta onartuta izatea.
- 163c) Tresna mikroinformatikoen gaineko prestakuntza.
- 163d) Sisteman arrotzak ez sartzeko, prebentzio-sistemak ondo konfiguraturata edukitzea.

